

{ asteari zeharka begira } **Maddi TXINTXURRETA AGIRREGABIRIA**

Historia hasi du Iraetako Amillubi proiektuak

Zestoako Iraeta auzoan badago kale berezi bat, etxe-ilara biren artean. Erdi Arotik XX. mendera arte herrigunetik aldentuta dagoen landa-auzo honetan garatutako industria-jardueren oinordetza bizia da. Hiru burdinola ziren bertan 1750 aldean, hirurak ere Granadako dukearenak eta, bi hamarkadaren buruan, instalazio horiek fanderia bilakatu zituzten siderurgia tradizionalaren gainbehera iristerako. Fanderiak, Estatuarekin zuen kontrata bati esker, burdin flaskoak ekoizten zituen, Amerikako meategietan lortzen zen zilarbizi edo merkurioa garraiatzeko. Langile dezente hartzen zituen –50 pertsona aritzen ziren lanean urteko bost hilabeteetan–. Horregatik, beharginentzako kolonia bat sortu zuten, halako lehenengoa Gipuzkoan.

Bi etxe-ilara egin zituzten eta han hartu zuten bizileku langileek. Egun, etxe bakoitzak bere izena erakusten du ateburuan: Dumbax, Kamiñerokua, Motxa-enea, Zabal-Etxe, Akertza, Lokatza, Otxua... Ertz batean, Granero etxea zegoen; bertan ordaintzen zuten errenta langileek. Olaizola eta Uria izena du kale horrek, 1953ko urriaren 14ko uholdeetan autobus batean buxatuta geratu ziren pertsonei laguntzeko asmotan bizia galdu zuten Jose Olaizola Arriaran eta Jose Uria Olaizola gazte iratarren omenez.

Bizirik da historia Iraetan. Bertan da 1842ko data daraman garbategia, Santa Ines basiliza, XX. mende hasieratik bertako sukaldaritza eskaintzen duen Errota edo Iraeta jatetxea, eta 1936ko gerra garaian ekinean jardun zuen “Txikito de Iraeta” pilotariaren izena hartu zuen frontoia. Antza, bere familia izan zen Iraetako Jauregian, errekaen beste aldean, bizi izan zen azkena. Egun, sasitzak janda eta erorita dago eraikina. Au-

zotar helduek kontatzen dutenez, bertan jolasten ziren umetan, harik eta “Fuego Eterno” (1985) pelikula-
ren errodate zabarrak jauregi dotoreari kalte konpo-
nezinak egin zizkion arte.

Egiazko suak hartu zuen, 2022ko urtarrilean, Urola errekaen meandroak marrazten dituen zelai kilome-
trikoen atzean, auzoaren eta Aizarnazabalen artean
dagoen Amilibia Txiki baserria. Auskalo zer historia
eta zenbat istorio jango zituen sute hark... Hala ere,
2023ko abenduan, Biolurreko jendeak bizitza berri bat
iragarri zion baserriari.

«Suak hartu zuen Amillubi baserria.
Auskalo zer historia eta zenbat istorio
jango zituen sute hark... Baina 2023ko
abenduan Biolurrek bizitza berri bat
iragarri zion baserriari».

Amillubi Taupaka egitasmoa sortuta, jendetzaren
ekarpen eskuzabalararekin, baserria eta bere lurak ko-
lektiboki erosteko erronka abiatu zuen Biolurrek. Hel-
burua, proiektu agroekologiko komunitario bat bul-
tztatzea, laborariak, kontsumitzaileak eta lurak
zainduko dituenak. 2,5 hektarea nekazaritza-lur, 1,5
hektarea belardi natural eta bost hektarea baso ditu
horretarako, eta eskulan boluntarioarekin ari dira lu-
rrok lantzen. Luzera begira, inguruan daude 26 hekta-
rea zelai, laborantza duina, rara avis bat egun, jende
askorengana zabaltzeko aukera ematen dutenak.

Pausoz pauso, halere. Elikadura burujabetzara bi-
dean, urtea bete berri du Amillubi proiektuak. Gaztea
da oraindik, baina historiak nonbaitetik hasi behar du
eta, ikusi daitekeenez, bizi-bizirik da Iraetan. Zorion-
ak, Amillubi! •